

Eusko Jaurlaritzako
eta Osakidetzako
Lankideen Elkartasun
Fondoa

Fondo de Solidaridad
de los Trabajador@s
del Gobierno Vasco y
Osakidetza.



2017ko memoria

**Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzako
Lankideen Elkartasun Fondoa
zer0,7**

2017ko maiatza

SARRERA

Memoria honetan Eusko Jaurlaritzako eta Osakidetzako Lankideen Elkartasun Fondoa elkarteak (aurrerantzean, zer0,7) 2017an egin dituen jarduerak jaso ditugu. Hasiera-hasieratik bezala, gaur egun ere erronka bat dugu: gure lana hobetzea eta ekimen solidario honetara ahalik eta jende gehien erakartzea.

BAZKIDEAK ETA EKARPENAK

Ohi denez, urtean zehar **zer0,7**ko bazkideek beren soldata gordinaren %0,7ko ekarpena egin dute, elkartasun fondoa elikatuz. Bazkideen kopurua, urtero pixka bat jaisten bada ere, egonkor antzean mantendu dela esan dezakegu. 2017ko abenduan 871 bazkide zituen elkarteak.

URTEKO BATZAR NAGUSIA

Urteko batzar nagusia 2017ko maiatzaren 31ean egin genuen, 14an, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitza nagusian (Donostia-San Sebastian, 1). Hona hemen orduko gai-zerrenda:

1. 2016ko kontuak eta jardueren memoria onartu.
2. Galderak eta eskaerak.

Batzarra egin aurretik eztabaidatu beharreko gaiari buruzko informazioa bidali zitzaizen zer0,7 elkarteko bazkide guztiei. Era berean, botoa posta bidez eman ahal izateko prozedura abian jarri genuen, batzarrera etortzerik ez zutenek ere bozka zezaten.

Erabaki hauek hartu ziren batzar hartan.

- Azken batzarreko akta onartzea.
- 2016ko kontuen balantzea eta ekintzen memoria onartzea.

FINANTZATUKO DIREN PROIEKTUEN BOZKETA

2017ko deialdiari bidea eginez, azaroaren 24an egin zen aurkeztutako proiektuetatik diruz lagunduko zirenak aukeratzeko batzar nagusia. Batzarra bigarren deialdian egin zen, 14:00etan, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitza nagusian. Hona hemen eztabaidatu ziren gaiak:

1. Azken batzarreko akta irakurri eta, hala balegokio, onartu.
2. 2016an onartutako proiektuen jarraipenari buruzko informazioa eman.
3. Galderak eta eskaerak.
4. 2017ko proiektuak bozkatu eta botoak zenbatu.

Batzar hartan ondorengo erabakiak hartu ziren:

- Azken batzarreko akta onartu zen. 129 bazkidek bozkatu zuten eta 113 baiezkoa bozka aldekoak izan ziren eta 16 zuriak.

Aurreko urtean diruz lagundutako proiektuei egin zitzaizen jarraipenaren berri eman eta galderen eta eskaeren ondoren, aurkeztutako proiektuen bozketa egin zen. Jakina denez, Garapenerako lankidetzaren proiektuak aurkezteko deialdia luzatzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) guztiei. Deialdia Euskadiko GKEen Koordinadoraren bitartez helarazten zaie GKEei.

Bazkideek 2011ko maiatzaren batzarrean onartutako lankidetzaren estrategia aintzat hartuta, Nazio Batuen Erakundearen Giza garapenerako indizearen arabera Afrikako 15 herrialde eta Amerikako 8 herrialde pobreenetan garatutako proiektuak finantzatuko direla jasotzen da deialdian. Proiektuak lortzen duten boto-kopuruaren arabera aukeratu dira, Afrikakoak zein Amerikakoak diren alde batera utzita.

2017ko deialdira aurkeztu ziren 26 proiektuetatik 25 onartu eta bat baztertu zen, deialdian jasotako baldintzak betetzen ez zituelako. Bazkide bakoitzak aurkeztutako proiektuen laburpenak jaso zituen, proiektu bat aukera zezan. Fondoan banatzeko modua ohikoa izan zen, boto gehien lortu dituen proiektutik hasi eta gutxiengorantz, fondoan zegoen dirua agortu arte. 871 bazkideetik 129k eman zuten botoa (%14,8).

Lortutako boto kopuruaren arabera (gehienetik gutxienera), ondorengo sei proiektuak finantzatu dira (jasotako boto kopuruaren arabera ordenatu dira):

PROIEKTUA	GKE	Non garatu	Diru-laguntza (€)
Kashushako gazteen artean kualifikaziodun profesionalak sortzeko institutu teknikoa eraiki (4 ikasgela).	JAMBO CONGO – Asociación para el desarrollo de la R.D. Congo	Kongoko E.D	50.000
Prostituzio egoeran dauden Freetowneko neskatilen eskubideak babestu eta sustatu.	Fundación Jóvenes y Desarrollo	Sierra Leona	47.235,04
Biyela osasun gunean 5 urtetik beherako haurren malnutrizioak sortzen dituen osasun arazoei aurre egin.	Medicus Mundi Bizkaia	Kongoko E.D	49.966,43
Kivu iparraldean Gomako barneratze zentroko soldadu adin txikikoen bergizartratzea.	Alboan	Kongoko E.D	50.000
Mozambikeko oftalmoloei prestakuntza eskaini, etorkizunean irakasle izan daitezzen eta herrialdearen garapenean lagun dezaten	Ocularis Associacio	Mozambike	50.000
Majune eta Marrupako nekazarien autonomia ekonomikoa eta elikadura segurtasuna era jasangarrian gehitu	Mundukide Fundazioa	Mozambike	17.000
			264.201,47

SENTSIBILIZAZIOA ETA BESTELAKOAK

Proiektuen finantzaketa kudeatzeaz gain, **zer0,7** elkarteak hainbat jarduera gauzatzen ditu hegoaldeko herrialdeetan ez ezik iparraldekoetan ere ematen diren injustiziekiko langileen sentiberatasuna sustatzeko.

Horrela, zenbait hedabideetako elkarrizketetan parte hartu genuen.

<http://www.eitb.tv/es/radio/radio-vitoria/el-mirador/4331364/4575291/el-mirador-4-de-enero-de-2017/>

Cadena SER San Sebastián de 31/1/2017

<http://www.noticiasdealava.com/2017/02/27/araba/el-sueno-de-jambo-congo>

Cadena SER Vitoria <http://play.cadenaser.com/audio/021RD01000000140993/>

Bazkideei zuzenduta hitzaldiak ere antolatu genituen.

Zer egiten dute dut nire diruarekin? Galdetu, ezagutu eta zeuk erabaki!

fiare Banca Ética

hitza

Martxoak 20 ordua 13:30 hora
marzo

LAKUA 2
sala 2 aretoa

charla

¿Qué hacen hago con mi dinero? Preguntar, conoce, decide.

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN

MOZAMBIKEKO NEKAZARITZA PROIEKTUA
PROYECTO AGRÍCOLA EN MOZAMBIQUE

Beñat Arzadun Olaizola

Urriak 2 / 2 de octubre **LAKUA II**
13:30 **5. aretoa / sala 5**

mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperativa cooperativa

30 urte Etiopian injustiziaren eta pobreziaaren kontra borrokatzen

HITZALDIA
ANGEL OLARAN
CHARLA

URRIAK 11
OCTUBRE
13:30

30 años de lucha contra la injusticia y la pobreza en Etiopia

LAKUA II
SALA 5
ARETOA

Deranda
Desplázate lo que puedes hacer por África en un click

ABENDUAK 21
DIGIEMBRE
15:00 h
LAKUA II
Prentsa Gelan

Etorri aurkezpen salora, zain izango zaituztegu!

2017KO FONDOAREKIN FINANTZATUKO DIREN PROIEKTUEN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DE LOS PROYECTOS QUE SE FINANCIARÁN CON EL FONDO DE 2017

Animaos y acudid
al acto de presentación ¡Os esperamos!

Era berean, 2017ko fondoarekin finantzatuak ziren proiektuak aurkezteko eta, bide batez, GKEei dirulaguntzen lehen ordainketa egiteko ekitaldi bat antolatu genuen.

Ekitaldi horretan parte hartu zuten Josu Erkoreka Gobernantza eta Administrazio Publikoko sailburuak, Jon Darpon Osasun sailburuak eta M^a Jesús Múgica Osakidetzako zuzendari nagusiak Zer0,7ren lanari eta urteetako ibilbideari babesa eta errekonozimendua erakusteko. Ekitaldira hainbat kazetari gerturatu ziren eta ondorioz honako hedabideetan egin zen zer0,7ren aipamena:

<http://www.rtve.es/alicarta/videos/telenorte-pais-vasco/telenorte-pais-vasco-2-21-12-17/4385172/>

<http://www.20minutos.es/noticia/3218485/0/asociacion-zer0-7-recauda-264-000-euros-para-financiar-seis-proyectos-africa/> 2017

<http://www.diariovasco.com/sociedad/201612/30/trabajadores-gobierno-vasco-donan-20161230105451.html> 2017

<http://www.lavanguardia.com/local/paisvasco/20171221/433796964311/la-asociacion-zer07-recauda-264000-euros-para-financiar-seis-proyectos-en-africa.html>

IREKIA Eusko Jaurlaritzaren interneteko atarian ere argitaratu zen berria:

[Eusko Jaurlaritzan eta Osakidetzan lan egiten duten pertsonen osatutako "Zer0,7" elkarteak 264.201€ batu du Afrikako sei proiektu finantzatzeko \(https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/43057\).](https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/43057)

JAKINAK ere jaso zuen fondoaren banaketare buruzko berria.

Osakidetzak Facebooken honako hau argitaratu zuen

<https://www.facebook.com/Osakidetzak/photos/a.192529807455150.46286.190526467655484/1828501703857944/?type=3>

KONTUEN MEMORIA

2017ko ekitaldiaren bukaeran honako hau zen **zer0,7** elkartearen kontuen egoera:

EMAITZEN KONTUA 2017

ZOR ALDEA		HARTZEKO ALDEA	
2017an PROIEKTUETAN GASTATUTAKOA.....	264.201,47	BAZKIDEEN EKARPENAK.....	258.317,02
		EUSKO JAURLARITZAKO BAZKIDEEN KUOTAK.....	109.502,05
		OSAKIDETZAKO BAZKIDEEN KUOTAK	148.814,97
Banku komisioak eta gastu finantzarioak.....	31,89	DEFICITA	5.916,34
ZOR ALDEA GUZTIRA.....	264.233,36	HARTZEKO ALDEA GUZTIRA.....	264.233,36

EGOERA-BALANTZEA 2017/12/31

ACTIBOA		PASIBOA	
Bankuko saldoa	130.418,02	Ordainketak, konprometituta baina egin gabeak.....	158.520,88
Kontuan jasotzeke dauden diru sarrerak	30.961,29	* 2017ko proiektuen ordainketen 2. zatia	158.520,88
*Osakidetzako kuotak, 2017ko abenduan jasotzeke daudenak	16.692,97		
*Eusko Jaurlaritzako kuotak, 2017ko abenduan jasotzeke daudenak	14.268,32	Aurreko urteetako gerakina.....	8.774,77
		2017ko DEFIZITA	-5.916,34
AKTIBOA GUZTIRA.....	161.379,31	PASIBOA GUZTIRA.....	161.379,31